


FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan negozioak aurrera egiteko Canada S.A enpresak funtzionatzeko, enpresak egin behar dituen jarduera garrantzitsuenak deskribatzen dira.



Canada S.A enpresak, bezeroei hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie. Aipagarriena, produktua erosten duten bezeroei eskeinitako urte beteko segurua da . Eskaera maila handitzen bada erloju gehiago ekoiztuko dira. Kalitatea berriz, oso ona izango da etorkizunari begira oso iraunkorrak izatea nahi dugulako.

Hortaz, garrantzitsuena produktuaren kalitatea bermatzea izango litzateke. Hala ere, bezeroren batek produktuarekin arazoren bat balu, enpresak salmenta ondorengo konponketa-zerbitzuak eskainiko ditu, soluzio bat bilatuz. Gainera, Alemanian(Europa) eta Argentinan(Amerika) egongo diren kontsultoriei esker, edozein arazoren aurrean oso erraza izango da konponbide bat aurkitzea. Bertan, bezeroei zuzeneko arreta eta zerbitzua emango zaie.

Enpresatik nabarmengarria den beste puntu bat, hornikuntza kudeaketa egokia da. Gainera, produkzioak neurrian egingo dira, soberakinak kontrolatzeko eta beraz, hondakin kopurua murrizteko. Produkzioa lantegian bertan egingo da baina produktua bezeroak diseinatuko du.